#2 [2022ko EKAINA]

ERAZTUN berde urdina

4 | Albisteak

6 | Erreportajea
EBU:
Gure hitzak,izenak eta esamoldeak.

8 | EA30:
Landare itsutasuna

11 | EBU kluba
Denbora pasak



Editoriala

Gure Eraztun Berde Urdina proiektu bizia da eta herritarren ekarpenari esker hazten ari da. Adibidez, bizilagunei eskaerari erantzunez, Hiruerreketa auzotik igarotzen da orain bidea. Honela, hainbat gune eta bide zahar errekuperatu dira eta orain irisgarriak eta garbiak daude. Asko eskertzen ditugu horrelako proposamenak: EBUren ibilbidea eta Zarautz aberasten dute; horregatik zuen ideiak helaraztera animatzen zaituztegu.

Proiektuaren helburua da herriaren inguruan ditugun espazio naturalak babestea eta errekuperatzea, eta, bide batez, zuekin Zarauzko biodibertsitatearen aberastasun handia partekatzea, denon artean natura zaindu eta gozatzeko. Helburu hauek lortzeko udaberrian Eraztun Berde Urdinaren txoko ezberdinetan hainbat ekintza eta oso pozik gaude ekimen hauek izan duten harrera bikainarekin. Uda honetan Zingira basoan eta Biotopoan gauzatzen diren bisita gidatuei ekingo diogu berriro ere, eta Zarauzko haltzadiak eta hezeguneak ezagutarazteko irteera gidatu berri bat eskainiko dizuegu.

Nobedade guzti hauen berri izateko EBUren buletinean harpidetza egitea animatzen zaituztegu (http://labur.eus/harpidetza).

Uda zoriontsua izan eta gozatu EBUaz!

Gloria Vázquez Herranz
Ingurumen Zinegotzia


Nuestro Anillo Verde azul es un proyecto vivo que está creciendo gracias a las aportaciones de la ciudadanía, como la última ampliación que hemos realizado para que pase por el barrio de Hiruerreketa a petición de los vecinos, recuperando espacios y antiguos caminos que ahora están limpios y accesibles. Agradecemos mucho estas propuestas que enriquecen el EBU y a todo Zarautz y os animamos a trasladarnos vuestras ideas.


Nuestro objetivo con este proyecto es proteger y recuperar los espacios naturales que rodean nuestro municipio y compartir con vosotros y vosotras la gran riqueza en biodiversidad de Zarautz para que entre todos podamos cuidar y disfrutar la naturaleza. Para lograrlo hemos realizado gran variedad de actividades esta primavera en diferentes enclaves del Anillo Verde Azul y estamos felices por la estupenda acogida que han tenido. Este verano recuperamos las salidas guiadas al biotopo, al bosque de Zingira y os ofrecemos una nueva para conocer los humedales de Zarautz y la aliseda.

Os animamos a suscribiros al boletín del EBU para estar al día de todas las novedades (http://labur.eus/harpidetza).

¡Feliz verano y a disfrutar del EBU!

Gloria Vázquez Herranz
Concejala de Medio Ambiente




2021EKO EBU EGUNEKO ARGAZKI ETA MARRAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEEN LANAK



Alexander Carriel
Elur-berdantza lhidietan (Iritan)



Amets Karrera Alberdi
Martin arrantzalea Iñurritzan



Marek Oliver, Ihidieta (Irita)

**Lan horiek guztiak ikusgai egon dira erakusketa batean.*

Ihidieta (Irita) berreskuratzeko lanak

2020an, Iñurritza errekaren horma bota zen Itxasmendi auzoan, ibaitik gertuen dagoen hezegune-zatia berreskuratzeko eta haren azalera handitzeko. Hezeguneak biodibertsitate aberatseko ekosistemak dira. Mareen arabera aldatu egiten dira, eta ekosistema dinamiko bat sortzen da ur geza eta ur gazia txandakatu egiten direlako. Ezaugarri berezi horiei esker, beste leku batzuetan bizi ezin diren espezieak bizi dira bertan. Hezeguneak funtsezkoak dira klima-aldaketaren ondorioak leuntzeko eta, batez ere, Zarautz bezalako kosta-herrietan itsas mailaren igoerak eragin ditzakeen uholdeak saihesteko eta oreka hidrikoa zaintzeko. Izan ere, hezeguneak ur gezaren erreserbak dira, eta gure herriaren akuiferoa kargatzeko gune garrantzitsuak. Akuiferoa mehatxu askoren menpe dago, eta garrantzitsua da horrelako eremuak babestea.





Nueva ruta de Buztinzuri

Hemos recuperado la Aliseda de Buztinzuri y en la actualidad el recorrido del EBU discurre por el interior de la aliseda, donde se puede ver el trabajo realizado: hemos retirado chabolas y basuras, acondicionado el camino por el bosque, hemos instalado un mostrador informativo y una pequeña fuente y canalizado las aguas que bajan del monte.








Compra verde: bosque de Gesoerreka

En el año 2019 el Ayuntamiento de Zarautz ha adquirido dos parcelas contiguas en el barrio de Santa Bárbara, el área de Gesoerreka, que se encuentra en la Zona Especial de Conservación Garate-Santa Bárbara de la Red Natura 2000. Son dos parcelas de bosque donde predomina el alcornocal y por ello de gran valor medio ambiental. Además, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado el proyecto de recuperación y restauración de este bosque de alcornoques y se encargará de su ejecución siguiendo una experiencia similar a la que llevamos a cabo en el bosque de Zingira. Nuestra próxima tarea será la de incorporar estos preciosos bosques dentro del Anillo Verde Azul para disfrute de la ciudadanía.



“Bide berria ireki da, eraztun berde urdina Hiruerreketa auzotik pasatzeko”

2021eko martxotik, Zarauzko Eraztun Berde Urdinak beste ibilbide bat du Hiruerreketa auzoan. Duela urte batzuk bide bat zegoen, bertako auzotarrek erabiltzen zutena. Baina bide hori ez zegoen erabiltzeko moduan, dena sasiak janda zegoelako. Horren aurrean, auzotarrak Udalarekin harremanetan jarri ziren, eta eskatu zioten bidea berreskuratzeko. Udalak urteetan bertan hazitako sasiak garbitu, bide erdian utzita zeuden txabolak kendu, eta egokitzapenak egin ditu, berriz ere bertatik ibili ahal izateko. Ibilbideak Igerain eta Vista Alegreko parkea lotzen ditu, eta Hiruerreketa auzoa ere Zarautz osoa inguratzen duen Eraztunaren ibilbidean integratu da.





EBU: GURE HITZAK, IZENAK ETA ESAMOLDEAK

ERAZTUN BERDE URDINAren ibilbidea osatzen duten hitzak, toki-izenak eta esamoldeak gure kulturaren altxorrak dira, eta belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho transmititu izan dira. Zoritxarrez azken urteetan galtzen ari da ahozko ondare aberats hori. Erreportaje honetan horietako batzuk bildu ditugu. Ezagutzen al dituzue?

**Erreportaje honetako informazioa "Zarautz Hizketan: Zarauzko ahozko ondarearen bilketa eta azterketa: hizkera eta etnografia ikerketa" lanetik eta Jesus Mari Olaizola "Txiliku"ren Zarauzko Hitzako Antigualeko Hiztegitik jasotakoa da.*


Arkamurka
(Quercus suber)

Euskara batuan artelatza deitzen zaio. Haren enborrak kortxoa ematen du. Baso horiek ohikoak dira Mediterraneoan. Kantauri aldean, ordea, ale gutxi batzuk ditugu, eta EAEn oso espezie bitxia da. Gainera, beste garai bateko klimaren baldintzetara egokitutako landarediaren lekukoa da (baso erreliktikoa), eta hemen berez hazten da. Zarautzen Euskal Autonomia Erkidegoko Arkamurka baso-populazio garrantzitsuena dugu, Gesoerrekan eta Zingiran adibidez. Bi eremu horiek Garate-Santa Barbara gune naturalean daude.




Basura

Ihintz ugaria da, gure inguruetako belardietan egunsentietan sortzen den hezetasun handia. Baso, zelai edo barrutietan zehar ibiltzean arropak edo gorputza erabat bustitzeko gai dena. Egun bero heze baten ondoren gau hotza izandakoan sortzen da basura izeneko fenomenoa, eta batez ere udan gertatzen da.




Berga - belar
(Trifolium pratense)

Trifolium generoko hirusta bat da, lore zuri eta arrosak izaten dituena. Euskara batuan hirusta gorria esaten zaio, baina beste herri batzuetan "sekula-belarra", "hiruorria", "frantses-bedarra" edota "praintzibelarra". Gure belardietan oso arrunta da, berez hazten den ganadujan guztiz estimatua. Sendabelarra ere bada, flabonoideak ditu. Bitamina asko du, eta antioxidatzaile ona da. Diuretikoa da, eta bronkitisa eta laringitisa sendatzeko erabili izan da, azaleko zauriak sendatzeko ere balio du.



Galtzada

Galtzada, harrizko gurdibidea. Zarauzko erdigunea eta Santa Barbara lotzen dituen antzinako bidea da irudian agertzen dena, eta bertatik igarotzen da Eraztun Berde Urdinaren ibilbidea. Galtzadazar bidea ere deitzen zaio. Segur aski Erdi Arokoa da. Gipuzkoan gaur egun arte gorde diren galtzaden artean ongien kontserbatutako bat da.



Haitz - erratz
(Ruscus aculeatus)

Sorgin-erratza berde-berdea da, arantzaduna, eta fruitu gorria ematen du. Gure inguruetako basoetan aurki daiteke, adibidez Zingira basoan eta Vista Alegren. Garai batean erratza egiteko erabiltzen zen, eta baita tximinia garbitzeko ere (arraskala tximini deitzen zitzaion). Gorostia debekatu zenean, erratza erabiltzen hasi ziren Gabonetako apaingarri gisa, baina espezie hori ere babestu egin beharko litzateke.



Ihidieta
('Irita')

Ihia dagoen eremua. Ihia ur-ertzean bizi den belar luzexka bat da. Iritako hezegunean ihi ugari topa daiteke, eta hortik dator haren jatorrizko izena: "Ihidieta".



Txirringillo, txirringulo
('zirringilo')

Hegaztia (Apus apus espeziea). Euskara batuan sorbeltza esaten zaio, eta gaztelaniaz vencejo. Oso aerodinamikoak dira, eta abiadura handian mugitzen dira, airean akrobaziak eta jauziak eginez. Habia egiteko unean izan ezik, bizi-ziklo osoa hegan egin dezakete (jan, ugaldu eta lo egin). Gauez 2.000 m-ko garaierara igotzen dira, airean lo egin ahal izateko. Urte osoan 10 hilabete inguru hegan ematen dituzte. Habiak gizakien eraikinetako paretetan eta zirrikituetan egiten dituzte. Urteko migrazio bidaietan 20.000 km-ko joan-etorria egiten dute. Gurera udaberrian etortzen dira, eta erraz ikus daitezke herrian. Habiak apiriletik ekainera bitartean egiten dituzte.




Txulufrin / Xulufrin
(Dianthus hyssopifolius)

Batez ere itsasertzeko labarretan eta hare-muinoetan hazten diren krabelin txikiak. Maitasun edo kariñozko esaldietan ere erabiltzen da (edo zen): **Ai! zu zara nire** (gure) **txulufrina!**



Sugatz

Belarrez edo garoz egindako meta bat da, haga edo hesola luze baten inguruan biltzen dena. Gure inguruetan ohitura galtzear badago ere (gaur egun batez ere plastikozko bolak erabiltzen dira), oraindik ikus daitezke sugatz bakan batzuk, adibidez, Santa Barbarako baserrien inguruan.





EA30
LANDAREEN ITSUTASUNA: ZER DA?

Mundu globalizatu honetan, gizakia gero eta gehiago ari da urruntzen naturatik. Zarautzek berdeguneak dituen arren, herria asko aldatu da urte gutxitan, eta bertan zeuden baserriak eta landa-lurrak ia desagertu egin dira. Horren ondorioz, landa-eremua herrigunetik urrun geratu da.

Zenbait botanikarik egindako ikerketen arabera, natur guneetatik aldendu ahala, galdu egiten dugu gure inguruko landarediari buruzko ezagutza eta interesa. Ondorioz, galtzen ari dira gure arbasoek eta aiton-amonek ahozko transmisioaren bidez jasotako ezagupenak eta gure kulturaren altxor bat den ahozko ondarea. Ezagutzen ez denak ez du izenik; horregatik, gero eta gehiago kostatzen zaigu inguruan ditugun landare arruntenei izena jartzea. Fenomeno honi **Landare itsutasuna** deritzo.

2021-2022 ikasturtean Eskolako Agenda 2030 programari ekin diogu berriro. Iaz lantzen hasi ginen 15. helburua ezagutzen jarraituko dugu aurten: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA, eta gai berria izan dugu eskuartean: **Zelaiak, larreak eta landare itsutasuna**.



ZARAUZKO IKASTETXEEK "HERRIA LORATUZ!" EKIMENA JARRI DUTE MARTXAN.










BA AL ZENEKIEN?

Zarauzko belardietan orkideak aurki daitezkeela? Orkidea entzuten dugunean, etxeetan eta loradendetan egoten diren landare eder eta ikusgarriak etortzen zaizkigu burura, klima tropikaleko herrialde urrunetatik ekarritakoak. Hala ere, Euskal Herrian baditugu bertako orkideak. Izatez txikiagoak dira, baina oso politak. Udaberri honetan ere ikusi dira zenbait espezie gure inguruetako belardi eta lorategietan. Ispilu orkideak eta erle-loreak adibidez, intsektu emeen formak hartzen dituzte, horiek erakartzeko eta polinizatzeko.


ZARAUTZEN AURKITU DAITEZKEEN ORKIDEEN 3 ADIBIDE:



Ispilu orkidea




Udazkeneko txirikorda



Erle-lorea

GALDETEGIA ?



ETA ZER EGIN DEZAKEGU GURE BELARDIEN EGOERA HOBETZEKO?

Ikasturte honetan ere herriko ikastetxe guztiak batu gara Agenda 2030 programan herri jasangarriago baten alde. Iaz lantzen hasi ginen 15. helburua ezagutzen jarraituko dugu aurten: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA eta eskuartean izan dugun gaia "Zelaiak, larreak eta landare itsutasuna" izan da. Zelaiak, larreak eta belardiak biodibertsitate handiko ekosistemak dira eta belarra altxor preziatua da gure baserritarrentzat. Guztion artean zaindu beharreko altxorrak dira.

Eta guk, ZER EGIN DEZAKEGU GURE BELARDIEN EGOERA HOBETZEKO?

Galdetegia bete ezazu eta Zarauzko HAZeko postontzian bota zure proposamenak. Sari bat zozketatuko dugu parte-hartzaile guztien artean.

Animatu eta parte hartu!

*Hemendik moztu

Izen-abizenak _____

Telefonoa _____

Posta elektronikoa _____


Idatz itzazu hemen zure proposamenak:

1

2

3

HERRI GALDETEGIA



ZEIN DA ZURE EBUKO HITZ, IZEN EDO ESAMOLDE GOGOKOENA?

Gure kulturaren parte dira ahozko ondarearen bidez eta belaunaldiz belaunaldi transmititu diren hitzak, hizkerak, esamoldeak. Zoritxarrez azken urteetan galtzen ari dira eta altxor hauek gordetzeko asmoz, EBU ibilbidearen baitan, landa eremuarekin, mendiarekin eta itsasoarekin zerikusia duten hitz bereziak gorde nahi ditugu. Horretarako lehiaketa bat jarri dugu martxan Zarauzko Udaletik. Herritarrei parte hartzeko galdetegia bete zure hitz/toponimia/hizkera edo esamoldea gogokoenaren proposamenarekin eta Zarauzko HAZ-eko postontzian bota ezazu. Itsasontzian bidaia zoragarri bat zozketatuko dugu parte-hartzaile guztien artean.
Animatu eta parte hartu!

**Hemendik moztu*

Izen-abizenak _____

Telefonoa _____

Posta elektronikoa _____

Hitza, izena edo esamoldea

_____

Zergatik da zure gogokoena?

_____


Denbora-pasak


MEZU SEKRETUA

BEHEKO MEZU SEKRETUAN EBUKO IZAKI GARRANTZITSU BATEN MEZU BEREZI BAT AGERI DA EZKUTATUTA. JAR EZAZU IRUDI BAKOITZAREN AZPIAN DAGOKION LETRA ETA MEZUA AGERTUKO ZAIZU. ZORTE ON!









BAKOITZA BERE TOKIAN

JAR EZAZU PEGATINA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN.

NON BIZI DIRA IZAKI BIZIDUN HORIEK?

ZARAUZKO HARRALDEAN ALA BELARDIETAN?

HARRALDEA



BELARDIA



ZAINDU DITZAGUN GURE BELARDIAK

BIRIBILDU ITZAZU ERAZTUN BERDE URDINEKO BELARDIETAN GIZAKIAK IZATEN DITUGUN JARDUERA EGOKIAK (BERDEZ) ETA JARDUERA DESEGOKIAK (GORRIZ).




ZEINTZUK DIRA JOKAERA DESEGOKIAK?

ETA EGOKIAK?

LANDAREEN ITSUTASUNA:

BELARDIETAKO LANDAREEN IZENAK ASMATZEN

BETE ITZAZU BEHEKO LANDAREEN IZENAK:



P_SM_ B_LA_ _A



_RR_B_T_I_

*Zarautzen: Kirkil belarra



K_K_ L_R_A

*Zarautzen: kuku praka



E_L_ L_RE_



ZA_ _G_RR_ _



H_R_ _T_ G_R_I_

*Zarautzen: Berga belarra



*ERANTZUNA: PASMO BELARRA, URREBOTOIA, KUKU LOREA, ERLE LOREA, ZAINGORRIA, HIRUSTA GORRIA.

ESKULANAK: ZARAUZKO BELARDIETAKO LOREAK EZAGUTZEN

MATERIALAK:

- LANDAREAK.
- GURAIZEAK.
- SOKA NATURALA (ADIBIDEZ KALAMUZKOA EDO LIHOZKOA).
- ZELOA.
- ARKATZA EDO BOLIGRAFOA.

NOLA EGINGO DUGU:

- GUSTUKO DITUZUN LANDARE ARRUNTAK MOZTU ETA BILDU.
- BILDUTAKO LANDAREA SOKA NATURALAREKIN LOTU ETA BURUZ BEHERA ZINTZILIK JARRI ETXEKO TOKI ILUN ETA LEHOR BATEAN.
- LOREARI BURUZKO INFORMAZIOA BILATU ETA IDATZI KOADERNOAN: IZENA EUSKARAZ, IZEN ZIENTIFIKOA, NOIZ LORATZEN DEN, ETAB. (HEMEN EREDU BAT DUZU, ERABILI NAHI IZANEZ GERO).
- ASTE BAT IGARO ONDOREN, LANDAREA LEHORTUTA EGONGO DA: ZATI BAT MOZTU, ETA KOADERNOAN ITSATSI ZELOAREKIN.



ITSATSI LANDAREA HEMEN


IZEN-ARRUNTA:

IZEN-ZIENTIFIKOA:

ARGAZKIA

BITXIKERIAK




Mutxio parkea
Zingira basoa
Garate - Santa Barbara
Vista Alegreko parkea
Hiruerreketa
Inurritzako hezegunea
Zingirako artelatz-arkamurka basoa


Malla Harria
Hiri-artzako dunak
BORGHETTO
Iñurritzako biotopoa
ZUBIONDO
Irita-Asti hezegunea
Irita - astiko hezegunea
Tejeriako haltzadia
Buztinzuriko haltzadia


ERAZTUN BERDE URDINA
HERRI-INGURUKO BERDEGUNEEN ZAINTZA


ERAZTUN BERDE URDINA


ZARAUZKO UDALA


ZARAUTZ 2030


4


13


14


15


18



